

KOSTU EGITURA

Enpresa batean gastuak dauden momentutik, honek kostu bat ondorioztatuko du. Kostuak kudeatu behar diren kontzeptu bat dira, diruari buruz hitz egiten ari garelako. Hau ongi kontrolatuz gero, ekonomikoki irabazten atera gaitzke. Bi kostu mota daude: finkoak eta aldakorak. Finkoei dagokienez, nahiz eta egoera ezberdinetan, hauek beti berdinak izango dira. Aldakorrei dagokienez, egoeraren arabera aldatuko dira. Adibidez, argindarraren erabilera hilabetero ez da berdina izango, baina gure kasuan, langile bakoitzari ordainduko zaiona bai. Hau hobeto zehatz dezagun, taula bat egin dugu, non kostu bakoitzaren prezioa eta mota agertzen dira.

Taula horretako datuak zehaztuz, gure kasuan bulego bat alokatzea erabaki genuen, denok toki berdinean lan egiteko aukera errazena baitzen. Oiarzungo industria-gunean aurkitzen den bulego bat aukeratu genuen, prezio ez oso altua izateaz gain, ingurugiro egoki bat duelako. Alokaturako bulego eraikin batean kokatzen da, eta beraz, alokairu bat ordaindu beharko dugu. Azken hau finkoa izango da, eraikineko jabeak atxikitutakoa. Hilabetero 1.200€ ordaindu beharko ditugu bulego hau alokatzeagatik. Gure enpresak eskura dezaken prezio bat da, eta gainera ez du gehiegizko gasturik bereganatzen.

Kostu finkoekin jarraituz, interneta eta aseguruak aurkitzen ditugu. Alde batetik, interneta behar-beharrezkoa dugu lan egiteko. Izan ere, oinarritzat gure proiektua aplikazio bat da, eta honekin lan egiteko etengabe interneta beharko dugu. Horretarako 40€ ordainduko ditugu hilabeteen, eta kontuan izanda erabiliko dugun gutzia, errentagarria bezala kontsideratzen dugu. Bestalde, aseguruak hilabetero 500€ ordainduko ditugu. Aseguruak edonork edonon behar duen kontzeptu bat da, edozerekin arazoak izanez gero, kasu askotan aseguruak ordainduko baitu.

Lehen aipatu bezala, kostu finkoak beste kostu aldakor ditugu. Horien artean aurkitzen dira argindarra, lan egiteko materiala eta inbertsioak. Adibide garbi bezala argindarra dugu, izan ere, argia ez da hilabetero kopuru berdinean erabiltzen den zerbait. Hala ere, gutxi gora behera izango duen kostua 120€koa dela ondorioztatu dugu. Izatez, eguzki-argiak ere badu zerikusia. Dena dela, udaran edota neguan jasotzen dugun argi naturalak argindarrean eraginak izango ditu. Lan egiteko materialean kostu gehiegi ez



Ampoule



izatea erabaki dugu. Horregatik, mahiak adibidez, bigarren eskukoak erabiliko ditugu 300€etara (5 mahi). Ordenagailuak funtsezko materialtzat ditugu, beraz, hiru erosiko ditugu guztira 840€etara. Aulkiak ere bigarren eskukoak izango dira eta hamar erosiko ditugu guztira 800€etara. Materialarekin bukatu ahal izateko, inprimagailu bat erosiko dugu 140€etara eta honek beharrezkoa duen tintan 100€ gastatuk ditugu.

Azkenik, inbertsioari dagokionez, hasieran gure enpresa aurrera ateratzeko beharrezko diru kopuruari egiten diogu erreferentzia. Hori dela eta, hasierako inbertsioa 4.040€koa izango da. Izan ere, lehen hilabeteen langileok ez dugu kobratuko eta ondoren irabazien arabera dirua irabazten joango gara. Hortaz gain, Play Store edota Apple Store aplikazioa jartzeagatik urtean ehun euroko gastua edukiko dugu.

Gastu guzti hauei aurre egin ahal izateko, hiru diru sarrera mota ezberdin eskuratuko ditugu. Diru kopuru handiena, irabazi iturrietan aipatu dugun moduan, publizitatetik bereganatuko dugu %75a izango da, kasu honetan gutxi gora-behera kalkulatu dugun irabaziak 50.000€-koa izango da. Hortaz aparte, gure aplikazioa dohainik den arren, premiuma lortzeko aukera egongo da, bertatik gure irabazien %20 lortuko dugu, eta diru aldetik gutxi gora-behera 23940€ lortu ditzazkegula kalkulatu dugu.



Balioan oinarritutako negozio-eredua izango da gure kostuen egitura mota. Gure enpresaren interes handiena ez da izango kostuak minimizatzea, baizik eta bezeroari eskaintzeko balioa sortzea. Gure zerbitzua ahalik eta kalitate hoberean saiatuko gara ematen, jendea kontzientziatzeko klima aldaketaren ondorioz gertatzen ari diren arazoez. Horrela, balio proposamenetan azaladu nahi dugun ideia lortuko dugu.

KOSTUAK	MOTAK	€ (hilabeteko)
Soldatak	Kostu finkoak	Departamenduko langileak:5 - 1600 → 8000 Langileak: 5 - 1300 → 6500
Alokairua	Kostu finkoak	1200
Argindarra	Kostu aldakorak	120
Internet	Kostu finkoak	40
Aseguroak	Kostu finkoak	500
Lan egiteko materiala	Kostu aldakorak	300 → Mahaiak (5) 840 → Ordenagailuak (3) 800 → Aulkiak (10) 140 → Inprimagailu (1) 100 → Inprimagailuaren tinta
		Guztira: 4040€
Play Storean aplikazioa jartzea	Kostu finkoak	Urtean: 100€ → 8,3 hilabetean

DIRU SARRERAK	€
Publizitatea	50.000
Mailegua*	10000
Salmentak (premium)	23.940